

## Intxaurrondo

# Intxaurrondon kantu-kantari

Urtean aukera asko dituzte auzotarrek kantuan aritzeko. Urte hasieran ikastaroa eta kantu eta dantza kalejira egin ziren, eta maiatzean "Lagunekin kantari" egitaraua izango dugu Larrotxenen.

Intxaurrondo Zaharreko Bizilagun Elkarteak kide Joxian San Romanen ustez, kantu tradizioa oso zabaldua dago auzoan. Olentzerori egin ohi zaion ongi etorria, Santa Ageda bezpera, jaiak... Egun horietan guztietan badago auzoko kaleetan kantuan aritzeko ohitura. Dena dela, San Romanen iritziz, "duela urte batzuk gaur egun baino handiagoa zen kantu tradizioa, eta ez Intxaurrondon soilik, Euskal Herri osoan baizik".

Kantua bultzatzeko zenbait ekimen egin izan dira azken urteotan. Joan den urtean, esaterako, kantu ikastaroa egin zen lehen aldiz. IZBEkoek ikastaroa euskaraz antolatu zuten, eta ekimena arrakasta-

tsua izan zen. Harrera onaren ondorioz, beste ikastaro bat jarri zuten abian, elebitan oraingoan.

### Bizilagun guztiei irekiak

Aurten, bigarren urtez jarraian, IZBEek kantu ikastaro-



ak antolatu ditu eta parte-hartzaileek abesteaz gain, letrak landu dituzte, askotan itzuliz eta abestien testuingurua aztertuz. Auzoa dinamizatu eta euskal kultura suspertzeaz

gain, beste helburu bat ere badute ikastarook: ekimena ahalik eta bizilagun gehienengana iristea. Helburu honen indotik, duela hilabete kantu eta dantza kalejira egin zen auzoko kaleetan. Joxian San Romanen hitzetan, "ekimen oso polita izan zen. Jendea gustura aritu zen kantuan, eta bizilagun askok taldean abestea gustuko dutela antzeman genuen".

Aipatu bezala, "Lagunekin kantari" egitarauaren txanda da orain. Egitasmo honen lehen emanaldia hilaren 3an, ostirala, izango da. Amaia Zubiriak abestuko du Larrotxene kultur etxean 20.00etan.

### Aste Gastronomikoa ate joka

Maiatzaren 27tik ekainaren 2ra bitartean Intxaurrondoko Gastronomikoa Astearen XII. edizioa egingo da. Urtero legez, sukaldaritza tailerrak, hitzaldiak eta afari dastaketak egingo dira, besteak beste.



**OLIYOS**  
TABERNA • JATEETxea  
Erregezainen kalea 4 • Tel.: 943 21 49 89

ERLOJU TAILERRA  
BITXIEN TAILERRA  
URRE ETA ZILARREZKO BAINUAK

ERLOJUTEGIA  
BITXITEGIA

SEIKO - LOTUS  
FESTINA - CITIZEN  
PULSAR - CASIO  
SWATCH - FLIK-FLAK  
CALYPSO

**EMIKEL**

Karkizano kalea 9, behea • Tel.: (943) 32 06 96 • Faxa (943) 32 01 15 • GROS

## IES ALTZA BHI BATXILERGOA



IZEN EMATEAK: MAITZAREN 2TIK 10ERA

EREDUAK: A ETA D

MODALITATEAK:

- 1.- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIEN BATXILERGOA
- 2.- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA
- 3.- BIDE TEKNOLOGIKOA

INFORMAZIOA: ALTZA PASEALEKUA 43

TEL.: 943 351044 • e.mail: 012224@hezkuntza.net